



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko azaroaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, azaroaren zortzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2022ko azaroaren 3a

1. ERABAKIA: ANTOLAMENDU ZERGAREN HERRIKO ZATIAREN ETEKINA EUSKAL ELKARGOARI DERRIGORREZ ISURTZEA

(7.6 nomenklatura: aurrekontu baldintzak)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio Frantziako Hirigintza Kodeko L.331-1 artikulua arabera, Herri Biltzarrak bere eremuan egiten diren antolamendu eta eraikuntza lanen gastuak diruztatzeko antolamendu zerga baten ezartzea erabaki zuela.

Frantzes estatuko 2022ko finantza legeak herriek zerga horretatik biltzen dituzten etekinak herri elkargoarekin, hots Euskal Hirigune Elkargoarekin, partekatzea behartzen du, elkargoaren eskumenekoak diren gastuak hobeki kontuan hartzeko.

2022ko irailaren 24ko erabakiz, eta bere finantza eta zerga itunaren ildotik, Euskal Elkargoko Batzorde Nagusiak zerga horren isurtzeko esparrua finkatu zuen.

Honela, soilik elkargoaren eremuko jarduera ekonomiko berrientzako (sortzea/handitzea) emanen diren hirigintza baimenetatik bildu etekina isuri beharko zaio antolamendu zerga. Herriak zerga horren sartzeen zati handiena atxikiko luke bere hirigintza garapen beharrei erantzun ahal izateko.

Bestalde, herriak antolamendu zergaren zati bat atxiki lezake, baldin eta frogatuko balu, udal ekipamendu publikoen gastuak bere gain hartuko dituela elkargoko jarduera ekonomikoko eremuetan.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- ONARTU DU, jarduera ekonomikoko eremu berrietan (sortzea/handitzea) eginen diren eraikuntzen gaineko antolamendu zergaren etekinen %100 Euskal Hirigune Elkargoari isurtzea,
- ONARTU DITU, isurpen hitzarmenaren xedapenak, eta BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horien izenpetzeko;
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide guzien egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko azaroaren 8an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/12/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/05ean.